

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %1,6 gehitu ziren 2017ko irailean

Bidaiari-sarrerak %0,4 gehitu ziren, uztail, abuztu eta irailean; atzeritar gehiago, estatuko gutxiago

2017ko irailean, 289.395 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 4.441 gehiago, %1,6ko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %8,6 gehitu ziren Araban, %0,7 Bizkaian, %0,1 Gipuzkoan.

Gaualdiak, 2017ko irailean, 564.437, aurreko urtekoan baino 856, %0,2, gehiago. Gaualdiak urte artean %0,8 gehitu dira Gipuzkoan; Araban %0,3 jaitsi eta Bizkaian %0,2.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2017ko Iraila

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)				Gelatiako Errentagarritasuna	
							plazaka		gelaka		ADR (eurotan)	RevPar (eurotan)
	2017/09	m/m-12 (%)	2017/09	m/m-12 (%)	2017/09	2016/09	2017/09	p.p.*	2017/09	p.p.*		
EUSKAL AE	564.437	0,2	289.395	1,6	1,95	1,98	64,5	-0,1	77,3	-1,7	95,4	73,7
Estatukoak	289.366	-7,8	150.034	-4,8	1,93	1,99	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	275.071	10,1	139.361	9,4	1,97	1,96	-	-	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	74.755	-0,3	42.762	8,6	1,75	1,90	57,6	2,7	68,6	-3,2	76,3	52,4
Estatukoak	50.512	-2,6	28.080	6,6	1,80	1,97	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	24.243	4,8	14.682	12,7	1,65	1,78	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	52.073	-3,3	28.636	7,3	1,82	2,02	58,5	1,8	71,3	-6,6	64,2	45,7
BIZKAIA	264.870	-0,2	138.356	0,7	1,91	1,93	64,6	0,5	79,3	-1,0	78,8	62,4
Estatukoak	134.688	-12,4	71.672	-9,2	1,88	1,95	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	130.182	16,5	66.684	13,9	1,95	1,91	-	-	-	-	-	-
Bilbao	171.087	-0,1	88.468	0,3	1,93	1,94	71,9	-0,3	87,1	-1,8	87,8	76,5
GIPUZKOA	224.812	0,8	108.277	0,1	2,08	2,06	67,1	-2,3	78,2	-2,1	122,4	95,7
Estatukoak	104.166	-3,7	50.282	-3,8	2,07	2,07	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	120.646	5,0	57.995	3,8	2,08	2,06	-	-	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	131.375	3,1	60.268	1,5	2,18	2,15	75,9	-0,4	88,3	-1,1	159,9	141,2

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea


Iturria: Eustat. Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta

Estatuko bidaiariak %4,8 gutxitu dira iazko irailaren aldean Euskal AEn, eta atzerrikoak %9,4 gehitu. Araban estatukoak %6,6 gehitu, atzeritarrak %12,7. Bizkaian estatukoak %9,2 gutxitu eta atzeritarrak %13,9 gehitu. Gipuzkoan atzeritarrak %3,8 gehitu eta estatukoak %3,8 gutxitu.

Batez besteko egonaldia, irailean, 1,95 egun, 2016koan 1,98 zelarik. Araban lehengo urteko 1,90 egunetik aurtengo 1,75era laburtu; Bizkaian 1,93tik 1,91era laburtu; Gipuzkoan 2,06tik 2,08ra luzatu.

Plazakako betetze-maila ehuneko 0,1 puntuz gutxitu da Euskal AE osoan, 2016ko iraileko %64,6tik aurtengo %64,5era. Araban ehuneko 2,7 puntuz gehitu, %54,9tik %57,6ra. Bizkaian ehuneko 0,5 puntuz gehitu, 2016ko iraileko %64,1etik aurtengo %64,6ra. Gipuzkoan ehuneko 2,3 puntuz gutxitu, 2016ko iraileko %69,4tik aurtengo %67,1era.

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Gelakako betetze-maila ehuneko 1,7 puntuz jaitsi da Euskal AEn, %77,3ra. Araban ehuneko 3,2 puntuz gutxitu, %68,6ra; Bizkaian 1,0z, %79,3ra; Gipuzkoan 2,1ez, %78,2ra.

Hotel-okupaziorik handienak irailean Donostian (%75,9), Bilbon (%71,9), Gipuzkoako kostaldean (%68,7). Asteko eguna aintzat, 2017ko irailean okupaziorik handiena (%70,1) aste-bukaeretan; %61,7 lanegunetan, Euskal AEn.

Sektorearen **errentagarritasun adierazleez**, eguneko batez besteko tarifa (ADR) 95,41 euro, 2017ko irailean, aurreko urtean baino %6,40 gehiago. 76,33 euro Araban (%+7,95); 78,76 Bizkaian (%+6,13); 122,41 Gipuzkoan (%+5,46).

Gela eskuragarriko diru-sarrerak (RevPar), zeinak okupazioaren arabera diren, 73,73 euro Euskal AEn 2017ko irailean, 2016koan baino %4,12 gehiago. Araban 52,36 euro; Bizkaian 62,42; 95,67 Gipuzkoan.

Gelakako betetze-maila Donostiako Zinemaldian, %90,0

18.736 bidaiari-sarrera 2017ko Donostiako Zinemaldian, irailaren 21etik 30era (10 gau). 41.810 gauraldi; plazakako betetze-maila, %90,0; gelakakoa, %72,7.

Gelakako betetze-maila Gasteizko FestVal-en, %74,4

5.772 bidaiari-sarrera 2017ko **Gasteizko FestVal-en**, irailaren 5etik 10era (6 gau).< 10.834 gauraldi. Plazakako betetze-maila, %74,4; gelakakoa %60,8.

Udako balantzea: Sarrerak gehitu (%0,4); gauraldiak jaitsi (%0,9)

Uztail, abuztu eta irailean Euskal AEn bidaiari sarrerak %0,4 gehitu ziren 2016ko udaren aldean; 4.054 sarrera gehiago. Bidaiari gehikuntzak: %2,0 (handiena) Araban; %0,0 Bizkaian; %0,3 Gipuzkoan. Euskal AEn, 2017ko udan, atzeritar gehiago (%+6,4), estatuko gutxiago (%-4,6). Araban %2,9 gehitu dira atzeritarren sarrerak; estatukoak %1,4. Bizkaian %+9,0 eta %-7,0. Gipuzkoan atzeritarrak %+4,7, estatukoak %-4,1.

Gauraldiak %0,9 gutxitu dira Euskal AE osoan. Hiru lurraldeetan jaitsi: Bizkaian %-1,4; Araban %-1,3; Gipuzkoan %-0,3.

Batez besteko egonaldia 2,05 egun Euskal AEn 2017ko udan; 2016koan 2,07.

Landa-ostatueta sarrerak %0,7 gehitu dira eta gauraldiak %1,0 irailean aurreko urtekoaren aldean

Euskal AEko landa-ostatueta 17.015 bidaiari-sarrera erregistratu ziren irailean, %0,7 gehiago aurreko urteko hil beraren aldean. Araban %3,9ko gehikuntza; Gipuzkoan %1,2 ; Bizkaian %1,8 jaitsi. Atzeritarren sarreretan %14,2ko gehikuntza aurreko urtekoen aldean; sarrera guztien %27,0. Estatuko bidaiarien sarrerak %3,5 gutxitu.

Euskal AEko landa-establezimenduetan irailean 41.533 gauraldi erregistratu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean %1,0ko gehikuntza. Gipuzkoan %+6,4; Bizkaian %-2,7; Araban %-10,2.

Plazakako betetze-maila, %31,8, ehuneko 0,6 puntu gutxiago 2016ko irailean baino. Araban ehuneko 2,6 puntu gutxiago, betetze-maila %20,7. Bizkaian betetze-maila %30,0, ehuneko 2,2 puntu gutxiago 2016ko irailaren aldean; Gipuzkoan 1,2 puntu gehiago, %37,9. Bidaiariko batez besteko egonaldia, 2016ko irailaren aldean: 2,43 egunetik 2,44ra luzatu.

2. taula.- Euskal AEko landetxeetako gualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2017ko Iraila

	Gualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2017/09	m/m-12 (%)	2017/09	m/m-12 (%)	2017/09	2016/09	2017/09	p.p.*
EUSKAL AE	41.533	1,0	17.015	0,7	2,44	2,43	31,8	-0,6
Araba/Álava	5.726	-10,2	2.907	3,9	1,97	2,28	20,7	-2,6
Bizkaia	12.198	-2,7	5.293	-1,8	2,30	2,33	30,0	-2,2
Gipuzkoa	23.609	6,4	8.815	1,2	2,68	2,55	37,9	1,2

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2017ko uztail, abuztu eta irailean, Euskal AEn, %1,3 gutxitu ziren bidaiarien sarrerak landa-ostatueta 2016koen aldean. Araban %-3,8; Gipuzkoan %+0,6; Bizkaian %-3,3. Euskal AE osoan %5,1eko jaitsiera gualdietan. Araban %-12,0; Bizkaian %-6,4; Gipuzkoan %-2,7. Euskal AE osoan, plazakako betetze-maila ehuneko 4,5 puntuz gutxitu da. Batez besteko egonaldia, 3,07 egun.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62